



‘Apartheid’ egoera salatu dute Tolosako epaitegian

BABESA ▶ Legez kanpo utzitako hautetsiek Andoaingo alkate ohiari babesa eman zioten

LANA ▶ «Udaletxeetan egon eta lana egin» nahi dutela adierazi du Mari Jose Ruiz udal ordezkariak ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Iker Camaño omenduko dute bihar

Tourreko euskaldun onena Urkamendin izango da afaltzen ▶ 5

ALEGIA ▶



O. ESKITXABEL

Kirol-kultur langileak hartzeko frogak

34 pertsonak eman dute izena ▶ 6

LEITZA ▶

Bihar, batzarra kiroldegiaz ▶ 7



Tren geltokia erabat berrituko du laster Renfek

TOLOSA ▶ Renfek Tolosan duen tren geltokia berritu egingo du laster, «datorren urte hasieran» seguraski. Kalitatea hobetu eta oztopo urbanistiko eta arkitektonikoak kentzea da lanen helburua. Bidaiariaren egoitza eta markesinak berritu, komun berriak eta lur azpiko pasabideetan igogailuak jarri, saneamendu sarea

berritu, horma altxa eta seinale eta altzari berriak jarriko dituzte. Ia 950.000 euroko aurrekontua dute lanek eta sei hilabetetan bukatuko dituzte. Egutero 3.325 bidaiari erabiltzen dute tren geltokia. Egutero aldiriko 74 tren zerbitzu eta urrutirago joateko beste 14 zerbitzu eskaintzen dira Tolosan. JOXEMI SAIZAR ▶ 4

TOLOSA ▶

Su ta Gar Bonberenean, 5. urtemugan ▶ 3

15 URTE ZUEKIN.
MILA ESKER.
Gabon hauetan, zozketa berezi bat antolatuko dugu bezeroen artean.
ZATOZ PARTE HARTZERA.

SABERRI
Nagusia, 17 • TOLOSA



POLITIKA ▶

'Apartheid' egoera salatu dute epaitegian

Joxean Barandiaraini babesa eskaini eta kontzentrazioa egin zuten herri plataformetakoek epaitegiaren kanpoan



Joxean Barandiarain epaitegi kanpoan zitaziotik irtendakoan, atzean kontzentrazioa duela. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Atzo eguerdian kontzentrazioa egin zuten ilegalizatutako herri plataformetakoek Tolosako epaitegian. Helburu nagusia, azken hauteskundeetatik hona bizi duten *apartheid* egoera salatzea izan zen. Bide batez, Joxean Barandiaraini babesa eskaini zioten. Urriaren 16an herri plataformetako 200 kideek bere egoera salatu zuten Andoingo udaletxean. Ekimen honen asmoa, Mari Jose Ruizek, Ibarrako zinegotzi ohiak adierazi duenaren arabera, «sinbolikoki udaletxea hartzea» zen, «udaletxeen parte sentitzen garelako eta hauteskundeetako botuek hori adierazten dutelako». Ruizek adie-

razitakoaren arabera, «ekitaldi baketsua eta iskanbilarik gabea izan zen». Duela egun batzuk, ordea, Joxean Barandiarainek, Andoingo alkate ohiak, Tolosako epaitegian deklaratzeko zitazioa jaso zuen.

Atzo zuen deklaratu beharra Barandiarainek 11:00etan eta, egoitza publikoa okupatzea da egozten zaiona. Epaitegitik irtendakoan, aipatutako egun horretan gertatutakoa azaldu zuen bildutako komunikabideen aurrean: «Goizeko hamaiketan sartu ziren udaletxera eta ni 11:45etan joan nintzen. Ni ez nengoen han udaletxean sartu zirenean eta gaur egungo alkate sozialistak onartu dit hori. Nik ez nuen deialdiaren berririk, Goiko plazan nengoen eta

jendea ikusitakoan hurbildu nintzen. Ez dut ulertzen zergatik zitatu nauten ni». Epaileak Euskal Telebistako irudietatik ateratako fotograma erakutsi zion eta bera zela onartu zuen, «baina irudiak udaletxetik kanpokoak ziren». Bestalde, udaletxea «era baketsuan» hartu zela azpimarratu nahi izan zuen.

Epaileak kasu honegatik sei pertsona deitu ditu deklaratzera eta horien arteko Tolosaldeko inor ez dago.

Barandiarain epaitegian deklaratzeko ari zen bitartean eskualdeko zenbait hautetsi elkartu zen kanpoaldean *Apartheid* ez leloa zeraman pankartarekin. Komunikabide ugari bildu zen bertan.

MARI JOSE RUIZ ▶ IBARRAKO UZTA PLATAFORMAKO KIDEA

«Udaletxeetan egon eta lana egin nahi dugu, herriaren nahia baita»



MADDI SOROA

Mari Jose Ruiz EHko Ibarrako zinegotzia izan zen aurreko legegaldian eta azken hauteskundeetan, Uzta plataformako zerrrendan zihoan bigarren postuan. Zinegotzi kargua exijitzen duenetako bat da.

Nola joan zen Andoingo eguna?

Bizi dugun *apartheid* egoera salatzeke egin genuen; izan ere, milaka boto daude eta ez digute uzten gure eskubideak jorratzen. Sinbolikoki udaletxe bat hartzea zen asmoa, udaletxea gure zati bat dela eta milaka botok hori islatzen dutela uste baitugu. Inongo iskanbilarik sortu gabe batzar aretora sartu ginen eta bertan gure bilera egin genuen.

Ez omen zen Ertzaintza azaldu.

Hori izan da komunikabideek argitaratu dutena, ez ordea, jende mordoak agertu zela Andoainera *apartheid* egoera salatzerara. Bigarren mailan jarri dute da ekintzaren garrantzia. **Zein ondorio izan ditu Andoingo ekintzak?** Ondoriorik larriena gure esku-

bideak defendatzeagatik kriminalizatu gaituztela izan da. Zer gertatuko den? Ez dakigu. Oraingoz, Andoingo alkate deitu dute, baina ez dakigu zer gehiago gertatuko den.

Zer lortu nahi da kontzentrazioarekin?

Joxeani babesa eman eta bizitzeko ari garen egoera salatu nahi dugu, *apartheid* egoeran bizi garelako eta horrelako ondorioak jasaten ditugulako.

Aurrera begira zein asmo duzue?

Bizitzeko ari garen egoera salatu jarraituko dugu. Ez dugu etsiko, hori lortu nahi badute ere. Gizartea inplikatu nahi dugu eta lanean jarraituko dugu gurea dena eskuratu arte. Udaletxeetan egon eta lana egin nahi dugu, hori baita herriaren nahia.

Nolako harremana duzue Ibarrako Udalarekin?

Oso harreman hotza daukagu. Dirua eskaini digute, baina guk ez dugu dirurik nahi, guk parte hartu nahi dugu. Benera gaizki dago egoera, ez baigaituzte kontuan hartzen. ◀

hitza **txokoa** lagunena

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

HITZAren harpidedun laguntzaileen artean zozketatutako **ILARGIAREN SEKRETUA** filmarako 10 sarreraren irabazleak:

- Jaione Iurrumendi (Ikaztegieta)
- Izaskun Jauregi (Amezketeta)
- Iziaz Aizpurua (Txarama)
- Nerea Baztarrika (Ibarra)
- Maite Mujika (Berastegi)
- Idoia Mendibil (Ibarra)
- Modesto-Enea estankoa (Añoeta)
- Eva Estibariz (Tolosa)
- Irudi Ileapaindegia (Tolosa)
- Salus Aranburu (Tolosa)

Azaroak 26 Tolosako Leidor Antzokian, 17:15ean eta 19:00etan. Irabazleek lehiatilan bertan jaso dezakete sarrera.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

BONBERENEAREN V. URTEURRENA ▶

EGITARAUA ▶

GAUR

19:30. *Orinoco: Humboldt-en bidetik*. Angel Cuerdoren bideo emanaldia.

BIHAR, OSTIRALA

22:30. Martxaundi Gaua, Tolosaldeko talde eta bakarlariren emanaldiekin: Jone, Prozak, Denis, Joselito el Albahicin, Ezein, Jokin Larraza, Inoiz, Huracan Txabakan, Mulambo, Markel Telleria...

ETZI, LARUNBATA

22:30. Su ta Gar taldearen kontzertua.

HILAREN 28A, IGANDEA

19:00. *Garganta profunda* filma, zine-klubean.

ABENDUAREN 9A

19:30. *Euskara lardaskatzeko manerak*. Kike Amonarrizzen eta Asisko Urmenetaren saioa.

ABENDUAREN 10A

22:30. Lobo electrico eta Brigada criminal kontzertuan.

ABENDUAREN 11

Arratsalde osoan. Eskalada txapelketa.
20:00. Mai Gorostiagaren bakarriketak.

ABENDUAREN 12A

19:00. *E.T.*, zine-klubean.

ABENDUAREN 18A

Egun osoko festa. Bonberenearen V. urtemugako bazkari herrikoia, etxeko txarangarekin kalejira mundiala...

ABENDUAREN 23

Arratsaldean. *Bost urte autogestioan ikasiz* Bonbereneari buruzko solasaldia.

DEIALDIA ▶

Kontzentrazioa gaur, Bilgune Feministak deituta

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna da gaur, eta Bilgune Feministak kontzentrazioa deitu du, «egoera jasanezin hau salatzeko». Gaur egingo dute bilkura, 20:30ean, Trianguloan.

EUSKARA ▶

EGA ikastaroa Aitzol Udal Euskaltegian

Datorren asteartean, hilaren 30a, EGA ikastaro berria hasiko dute Aitzol Udal Euskaltegian. Eskolak astean bi egunetan izango dira, 17:30-etik 19:30era. Interesa duenak 943 65 10 06 telefono zenbakira deitu behar du; izena lehenbailehen ematea eskatu dute euskaltegiekoek.

TXOTXONGILOAK ▶

Tolosa Gasa-ren zozketako sarituen izenak

Tolosa Gasa-k Nazioarteko Txotxongilo jaialdirako abonak zozketatu berri ditu. Hauexek dira Titirijai-rako sarreak jasoko dituztenak: Maria Mendizabal, Izaskun Saralegi, Imanol Zubillaga, Mikel Aretxaga, Xabier Zeberio, Ainhoa Landa, Juan Ignacio Lope, Ana Mari Lasa eta Naroa Telleria.

HEZKUNTZA ▶

Izen-ematea zabalik LHI-ko ikastaroetan

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak toronaren mekanizatu, pertsonen errekurtso kudeaketa eta Windows ikastaroak eskainiko ditu laster. Hobetuzen diru laguntzak jasotzen dituzte ikastaroek eta, beraz, doakoak izango dira. Astelehenean, hilaren 29a, izango da lehenengo saioa. Arratsaldean eskainiko dira eskolak, 18:00etatik 21:00etara, astelehenean ostegunera. Oraindik izena eman daiteke, plaza batzuk libre baitaute. Informazio gehiago jakin edo ikastaroa egin nahi duenak ikastetxera bertara jo behar du (Santa Luzia auzoa. 943 65 11 47).

Konturatzerako, koskortuta

Bonberenearen V. urteurrena ospatzeko, ekitaldi ugari antolatu dituzte egunotan



Bonbereneako txaranga, iazko urteurren ekitaldian. WWW.BONBERENEA.COM

LEIRE MONTES

«Tolosaldeko mugimendu eskasiaren ondorioz talde eta pertsona ezberdinen arteko ekimenez» sortu zen Bonberenea. Eta, konturatzerako, umea koskortzen ari da: hain zuzen, ekimenaren bosgarren urteurrena ospatuko dute egunotan.

Beste behin «parte-hartze aktiboagoa eta sortzaileagoa» aldarrikatuz, era guztietako ekitaldiak antolatu dituzte etxekoek. «Egungo gizartearen balore eta ekintzen erreferente alternatiboa izan nahi du Bonbereneak. Gure kulturaren egile eta bultzatzaile zuzenak izan nahi dugulako, oztopo instituzional eta ekonomikoak ahalik eta gehien murriztuz».

Gaur izango da lehen ekitaldia. Angel Cuervo abenturazale tolosarrak Orinokora egingako bidaia aurkeztuko du, 19:30ean. Eta asteburuan musika izango da protagonista.

Biharkoa gau berezia antolatu dute: Martxaundi Gaua. «Tolosaldeko taldek eta bakarlarik osatutako bilduma da Martxaundi, Bonberenea Ekintzak eta Galtzaundik elkarlanean ekoiztutakoa». Bilduman parte hartu duten talde guztiak emanaldia eskainiko dute etxean, 22:30ean: Jone Otxoa bakarlarri anoetarra; Ivan Alzatek, Iker Pirisek, Mikel eta Mitxelek osatzen duten Prozak taldea; Denis Ruiz bakarlarri tolosarra; Ezein boskotea; Jokin Larraza eta Juantxo Zeberio; Inoiz taldea; Huracan Txabakan; Mulambo perkusio taldea; Tolosa bizileku aukeratu duen Joselito el Albahicin bakarlarria...

Eta etzi, Su ta Gar talde mitikoak estreinakoz joko du etxean: «Euskal Herriko talde handi honek lehen aldiz zapalduko

WEBGUNEA ▶



Webgune berritua du Bonbereneak: www.bonberenea.com. Albisteak, argazkiak, era guztietako informazioa eta abar luze bat jasotzen ditu. Hauexek dira atalak:

- ▶ Aurkezpena: zer da Bonberenea?
- ▶ Egutegia: hilabeteka, ekitaldien agenda.
- ▶ Historia: bost urte hauetako kronika, argazkiak eta ekitaldien zerrenda.
- ▶ Bonberenea Ekintzak: diskak, kamisetak, estudioa, skate, txaranga, zine-kluba, ikastaroak, rokodromoa...
- ▶ Non gaude: kokapena eta zerbitzuak.
- ▶ Eskerrak.
- ▶ Loturak.
- ▶ Prentsa.

du Bonbereneako taula, eta giro aparta sortuko da».

Igandean. *Garganta profunda* filma izango da ikusgai etxean, 19:00etan. Abenduan itzuliko dira berriro ekitaldiak: hitzaldiak, kontzertuak, eskalada txapelketa, antzerkia, bazkaria eta kalejira... Eta, konturatzerako, seigarren urteurrena.

Izaera aldarrikatuz

Bonberenea Ekintzak zigiluak bere zazpigarren diskoa kale-ratu berri du: Izaera taldearen 10 programa gaiztokian.

Irun eta Hondarribia arteko talde gaztea da Izaera. Duela hiru urte argitaratu zuten maketa, eta dagoeneko 70 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte. Orain, gitarrajolea aldatu eta gero, lehen iraupen luzeko lana dute kalean. Mikelek, Aritzek eta Sergiok osatzen dute taldea.

Hirukoteak argi zuen Bonbereneako estudioetan grabatu nahi zutela beren diskoa. Karlos Osinagak grabatu eta masterizatu du. Martxel Mariskal, Xabi Strubell, Jabi Lisabó, Gorka Kashbad, Inadapats taldeko Alex, Galder Izagire eta Baxi Ubeda izan dituzte bidelagun Izaera-koek.

«Maketan agertzen zen ahots zakarrak zein baxu distorsionatuek bertan diraute, nahiz eta bateriaren erritmoak azkarragoak eta dinamikoak diren. Kitarrek zentzu



10 programa gaiztokian. HITZA

eskizofreniko bera mantentzen dute, baina protagonismo ritmikoa hartu dute doinu agresibogoen bila», diote Bonbereneakoek.

Hamar kanta jasotzen ditu 10 programa gaiztokian diskoak. Kantuen hitzek «betiko gai eta azalkeiatik ihes» egiten dute. Bakoitzenaren interpretazioa «airean» utzi nahi dute. Eta «errebindikazio sonoro zein ideologikoaren deklarazioari lekua» egiten diote.

Abenduaren 11n *Odolak ez du zikintzen* bira hasiko du Izaera taldeak. Besteak beste, urtarrilaren 21ean Anoetako Gaztetxean joko du. ◀

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Emakumeon aurkako indarkeriari aurea hartu

Aurten ere iritsi zaigu azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna, alegia. Aurten ere beste borroka egun bat izango dugu, izan ere, 2004ak utzi digun balantzeak borrokan jarraitzeko arrazoiak bere horretan dirautela adierazten baitugu. Euskal

Herrian 5 emakume erahil eta ehunka jipoiu dituzte, sexu indarkeriaren biktimen kopurua handitzen doa urtez urte, zergatik ote?

Guk arrazoiak argi ditugu. Ez dugu uste «(etxeko indarkeria) kasuak direnik hauek, ez dira eraso isolatuak, ezta «pasiozko erahilketak», zenbait komunikabidek sinistazari nahi digun bezala. Egiturazkoa eta benetakoa den sexu indarkeria da jasaten duguna, emakume izatearren soilik mehatzatzen, kolpatzen, erahiltzen gaituzte.

Kasu hauen aurrean instituzioei benetako babesa ematea exijitzen diegu, eta erasotzaileei ez hemen ez inon ere lekuri ez dutela argitu nahi diegu. Jendarte osoari deia egin nahi diogu, argi utzi behar dugu, ez gaude hau onartzeko prest, eta denon lana beharrezkoa da egoera jasanezin honi amaiera emateko.

Emakumeen Mundu Martxarako Euskal Herriko Plataforma proposamen bat egin du sexu indarkeriarekin behin betiko buka dezagun. Lan egitea

pentsatu dugun puntuak hauek dira:

- Emakume taldeei deia egiten diegu emakume bat hiltzen dutenetik 48 ordura kontzentrazio eta manifestazioak antolatzea, eta jendarte osoari kalera irten dadin kasu hauetan.

- Emakume artisten aportazioa jaso nahi dugu sinbolo bat sortzen laguntzeko. Sinbolo hau gure ahotsa bateratu, gure protestari indarra eman eta gure deialdiak identifikatzeko tresna izatea nahi dugu. Prozesu bat ireki eta aportazio des-

berdinak erakusgai jarriko ditugu indarkeria sexistaren sailaketa gisa.

- Komunikabideei, erakunde publikoiei, sindikatu eta alderdi politiko guztiei eskatzen diegu gure deialdiak babestu eta zabaltzeaz gain gure sinboloa erabil dezatela.

Besterik gabe, ostegunean Tolosako Trianguloan izango dugun kontzentrazioa etortzeko gonbita luzatu nahi dizuegu Tolosaldeko biztanle guztioi.

IOHANA LOPETEGI ETA IZASKUN SARASOLA ▶ BILGUNE FEMINISTA

HIRIGINTZA ▶

Tolosako tren geltokia erabat berrituko du laster Renfek

Kalitatea hobetu eta oztopo arkitektonikoak kendu nahi dituzte: egoitza eta markesinak berritu, igogailuak eta komun berriak jarri, horma altxa...

JOXEMI SAIZAR

Tolosako tren geltokian berrikuntza lanak hasi behar ditu laster Renfek, bertan dauden oztopo urbanistiko eta arkitektonikoak kentzeko. Lanak datorren urte hasieran hastea espero dute.

Lan hauekin Renfeko Aldiriko Unitateak eskatzen dituen gutxiengo kalitate maila eman nahi diote geltokiari. Lanak ez dira oraindik hasi, baina urriaren 16ko BOEn —Espainiako Buletin Ofiziala— argitaratu zen lanen lehiaketa.

Besteak beste, bidaiarien egoitza erabat berrituko dute —estalpea, fatxada, beheko solairuko barrualdea—, nasen arteko lur azpiko pasabidean bi igogailu jarriko dituzte, markesinak berrituko dituzte, saneanamendu sarea berritu eta komun publiko berriak jarriko dituzte, geltokia isteko 90 metroko horma altxako dute eta seinale eta altzari berriz hornituko dute tren geltokia.

BOEn agertutako lizitazio iragarkiarenekin baldintzen artean, lanen aurrekontua dago, guztira 928.952,41 euro inguru. Horietatik 18.617,06 euro seguritate eta osasun laboralaren azterketarako izango dira. «Baliteke gero lizitazioan enpresaren batek kopuru hori jaistea», adierazi dio HITZARI Alvaro Etxaniz Renfeko prentsa arduradunak. Lanak burutzeko sei hilabeteko epea izango dute. «Hasiera data zehaztu gabe dago, baina datorren urte



Tren geltokiaren barrua eta inguruak berritu nahi ditu Renfek laster. J.SAIZAR

hasieran izatea espero dugu», erantsi du bozeramaileak.

3.325 bidaiari egunero

Tolosako tren geltokia Irun-Brinkola aldiriko linean sartzen da eta inguruko garrantzitsuenetakoa da eguneroko mugitzen dituen bidaiari kopuruari begiratuta. Lanegunetan batz best 3.325 bidaiari ditu.

Irun-Brinkola lineak —eta Tolosako geltokiak— gaur egun aldiriko 74 tren eskaintzen ditu egunero —lan egunetan—. «Egunero hiri handiagara, batez ere Donostiara eta Irunera, joan-etorria egiteko aukera ona da», diote Renfeko arduradunak.

Tolosako geltokiko bezeroek zortzi tren Civis bereziak dituzte, goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko ordu puntetan kokatuta. Zerbitzu hauei esker, gune honetan erabilpen handiena duen bidaia —Tolosatik Donostiara— 18 minututan joan daiteke, geldialdirik egin gabe, eguneko mugimendu handieneko unetan.

Beste tren zerbitzuei begiratu, Tolosako geltokian egunero beste 14 tren gelditzen dira, linea luzeetako zortzi eta lurraldeko beste sei. Zerbitzu hauei esker Tolosa eta Tolosaldeko bidaiariak Gasteiz, Iruñea, Zaragoza, Bartzelona, Burgos, Valladolid eta Madril bezala destinoekin komunikatzen ditu.

DATUAK ▶

LANAK

Aurrekontua. 928.952,41 euro.

Epea. Sei hilabete.

ZERBITZUA

Aldirikoak. Egunero —lan egunetan— 74 tren zerbitzu.

Bereziak. Zortzi tren zerbitzu ordu puntetan: Tolosa-Donostia 18 minututan geldialdirik gabe.

Besteak. 14 tren zerbitzu egunero, 8 linea luzeetako eta 6 lurraldekoak.

Bidaiariak. 3.325 egunero.

HITZALDIA ▶

Euskal estatuaz, Orreagaren eskutik

Orreaga taldeak ekimen politikorako ikuspegi berriak sustatu nahi ditu eta Tolosan hitzaldi sorta antolatu du datozen hilabeteetarako, eztabaida berriak piztu asmoz. Gaur 19:30ean izango da lehen a daletxean. Gaizka Aranguren *Euskal estatuaren teoriak, atzo, gaur eta bihar* gaia jorratuko du eta ondoren gaiari buruzko tertulia izango da. Tolosar guztiei luzatu diete gonbitea.

ZINE-KLUBA ▶

'Capturing the Friedmans' gaur Leidorren

Andrew Jereckiren *Capturing the Friedmans* filma ikus ahal izango da gaur zineklubean Leidorren 21:30ean. 1987an Friedman familiako aita-semeak pederastiaz akusatuta espetxeratu zituzten. Dokumental honek AEBtako gizartearen moral bikoitza eta sistema legal kuestionagarria jasotzen du. Sundanceko zinemaldian sari nagusia jaso zuen. Musika Andrea Morriconerena da, Enioren alaba.

IPUIN KONTAKETA ▶

Ray Bueno, 7 eta 12 urte arteko haurrentzat

Ipuinaren inguruko saio ugari ari dira egiten azkenaldian Haur Liburutegian. Gaur 18:00etan Ray Bueno kontakariak ipuin kontaketa egingo du. Saioa 7 eta 12 urteko haurrei dagozuzenduta.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Eskualdeko hainbat ikasle, euskal jolasen topaketan

Anoeta, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo eskoletan dauden DBHko 3. mailako ikasleak aritu ziren

IMANOL GARCIA

Villabonako Errebote plaza gaztez bete zen atzo goiz guztian zehar. Behelainoa izan zen nagusi eguerdiraino, baina gero eguzkia azaldu zen. Ordu-rako bildu ziren ikasleak egin zituzten antolatutako euskal jolasen saio gehienak.

Kutxak antolatu eta Ikasiker-Ikaspilotak sustatzen ditu topaketa hauek. Atzokoan DBHko 3. mailako ikasleek hartu zuten parte. Eskualdeko eskola ezberdinetatik joan ziren Villabonara: Anoetako Ikastola, Ibarrrako Uzturpe Ikastola, Tolosako Hirukide ikastetxea eta Zizurkil-Villabonako Jesusen Bihotza Ikastola.

Hamalau eta hamabost urte bitarteko ikasleak hainbat jokoetan lehiatu ziren. Baina lehiaketa ez da, noski, garrantzitsuena topaketa hauetan, elkar laguntza eta talde lana baizik. Horrela adierazi du Manex Beristainek, Ikasiker-Ikaspilotako kideak: «Topaketa hauen helburua euskal jolasak indartzeaz gain ikasleen arteko harremanak landu eta garatzea li-

tzateke, beti ere jolasak nahiz lehia tresna motibatzaile bezala erabilia eta ez helburu bezala. Ondo pasatu eta gure kulturaren transmisioa garatzea da helburua».

Jokoak eta tailerrak

Topaketa aurretik ikasleek beraien eskoletan lantzen dituzte jolasak. Hiruhilabeteko unidade didaktikoa prestatzen dute Ikasiker-Ikaspilotakoek eta hori burutzen da eskoletan. Ondoren, eskola ezberdinak elkartzen dituzte, atzoko topaketan bezala, festa giroan jolas horiek praktikatzeko.

Atzoko topaketan, alde bate-tik joko ezberdinak landu zituzten. Bestalde, bertso eta orientazio tailerra egin zuten. Euskal kulturarekin lotuta hainbat joko egin ziren, baitzuetan abilezia eta besteetan indarra izaki erabili beharreko gaitasunak: sokatira, lokotxak, txingak, hankapaloak, giza froga eta boloak. Bertso tailerrean, talde guztiaren artean asmatu behar zuten bertso pareta eta gero jende aurrean abestu.



Hankapaloak izan ziren egindako probetako bat. I. GARCIA

ANOETA ▶

Euskal tribial txapelketa bihar Gaztetxean

Anoetarrok Elkarlanean plataformako Kultura Batzordeak euskal tribial txapelketa antolatu du, Gazte Asanbladarekin elkarlanean. Orain bi urte ere antolatu zen txapelketa hau. Bihar gauean izango da hitzordua, 22:00etan, Gaztetxean. Izena ematea doan da eta Gaztetxera azaldu besterik ez dago txapelketa hasi baino lehen. Bestalde, Kultura Batzorde berak antolatzen ari den dantza-sokan izena ematea dago Itzuli tabernan. Entseguak hasi dira dagoeneko. Astelehenera eta asteazkenetan izaten dira, 19:30ean, Edurkan.

ANOETA ▶

Alkartasunak hamabigarren urteurrena, etzi

Jubilatuak Alkartasuna elkarteak sortu zeneko hamabigarren urteurrena ospatuko du etzi, larunbata, Milagrosa egunean. 12:30ean meza izango da, euskaraz eta gaztelerez, parrokian. Meza Ramon Zubeldia kide ohiaren omenez izango da. Ondoren, bazkaria egingo da Ikastolan. 91 lagunek eman dute izena dagoeneko. Gaur da azken eguna izena emateko eta horreterako Biltokian bertara joan behar da. Bazkaloste- an musika izango da.

VILLABONA ▶

Sendotza egin nahi dutenentzat bilera gaur

1987 eta 1988 urteetan jaiotakoek eta sendotza sakramentua hartu nahi dutenek bilera izango dute gaur arratsaldeko 19:30ean Satorra aretoan.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Urkamendi elkarteak Iker Camaño txirrindularia omenduko du, aurtengo Tourreko lehen euskalduna

Urtero legez, afaria egingo da eta ondoren bertso saioa eta trikitilariak izango dira

I. GARCIA

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak urtero saritzen du Tourreko lehen euskalduna. Aurten hermeretzigarren aldia da sari hau ematen duena eta Euskalteleko Iker Camañori egokitu zaio. Txirrindulari euskalduna 25. sailkatu zen aurtengo Frantziako Tourren, Armstrong irabazlearengandik 47 minutu eta 25 segundora.

Omenaldia bihar egingo da Urkamendi elkartearen bertan, 20:30ean hasiko den afarian. Lehenengo aurrekoa dantza-

tuko diote eta ondoren, afarian zehar oroigarria emango zaio Camañori. Omenduaren ondoren txirrindularitza munduko gonbidatuak izango dira. Besteak beste, Mikel Astarloza, Julian Gorospe, Pello Ruiz Cabestany, Xabat Otxotorena, Arantxa del Rio, Jesus Aranzabal (beteranoa), Marino Lejarreta eta Txomin Perurena. Ekitaldian Modes Iraola zizurkildarra omenduko dute ere, munduko azpitxapeladuna izan baita aurten ehizan.

Afariaren ondoren, bertso saioa izango da. Sebastian Li-

zaso, Alaitz Sarasola eta Millan Telleria bertsolariak ariko dira. Koplak entzun ondoren musikaren tarteak izango da, Xapre eta Totxo trikitilariekin.

Iker Camañok txirrindulari aski ezagunek jasotako oroigarria hartuko du. Marino Lejarreta eta Miguel Indurain, esaterako, bost aldiz izan ziren lehen txirrindulari euskaldunak. Abraham Olano eta Joseba Beloki, hiru aldiz. Txente Garcia nafarrak behin jaso du eta aurreko Tourrean Haimar Zubeldia izan zen lehen euskalduna.

ALEGIA ▶ UDALA

Datorren astean, udal langileak aukeratzeko lehenengo frogak

Hogeita hamalau pertsonak eman dute izena kultur teknikari eta Kirol Kultur Etxeko harreragile lanpostuetarako



Datorren astean egingo dituzte Kirol Kultur Etxeko langileak aukeratzeko probak. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Kultur Kirol Etxea, Kirol On enpresak kudeatu du azken zortzi urtetan; bigarren kontratua amaitzen zaiola-eta, aurrera begira Udalak berak

kontratatu ditu bertako zerbitzuak eta teknikariak.

Bi pertsona kontratatuko ditu Udalak: kultur dinamizatzailea eta garbiketa eta harreraren lanak egiteko langilea. Kultur dinamizatzaile izateko he-

mezortzi pertsonak eman dute izena; harrerarako, berriz, hamaseik: «Gehienak eskualdekoak dira, gainera», gehitu du Olatz Amondarainek, Alegiako alkateak.

Langileak aukeratzeko lehe-

nengo azterketak edo probak datorren asteartean, azaroaren 30ean, izango dira.

Udalak kontratatuko dituen langileek Kirol Kultur Etxean irekitze eta harrera ordutegia ziurtatu beharko dute; horrekin batera, kultur teknikaria, Batzordearekin batera, dinamizazio, planifikazio antolaketa eta koordinazioaz arduratuko dela azaldu du Olatz Amondarainek, Alegiako alkateak.

Langileen eta zerbitzuen kontratazioarako 79.500 euro inguru (13.000.000 inguru) aurriztatu ditu Udalak.

Udalak zuzenean kontratatuko dituen langile horietaz gain, enpresei hainbat zerbitzu kontratatuko dizkie. Kirol teknikaria, esaterako, enpresa pribatu batek jarriko du; hasieran, behintzat, kirol eskolarraren koordinatzailea izango da hori.

Ikastaroen ardura ere enpresa bati egotziko zaio. Dagoeneko aurrekontuak eskatu ditu Udalak. Egun, Kirol Kultur Etxean martxan dauden ikastaroak mantentzeko asmoa agertu du Alegiako Udalak; Aerobik, mantenu gimnastika, hirugarren adinekoentzako gimnastika eta karate ikastaroak eskainiko dituzte; pixkanaka, eskaintza zabaltzen saiatzeko asmoa ere agertu du Udalak.

Proposamen berri horrekin, «herrian dinamika berriak piztu» nahi dituzte; horretarako, «herriko taldeen, Batzorde desberdinen, eta herritarren inplikazioa» ezinbestekoa dela azaldu dute udaletxetik.

ALTZO ▶

Tinko Elkarteak jaso du Anton Abbadia saria

Elkarteko arduradunetako bat da Marian Galarraga altzotarra

O.ESKIXABEL

Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamenduak herenegun jakitera eman zuenez, aurtengo Tinko Euskara Elkarteak jasoko du Anton Abbadia saria. Bertako arduradunetako bat da Marian Galarraga altzotarra

Tinko Euskara Elkarteak 1993an sortu zen, areto komertzialetan eta ordutegi arruntean euskaraz bikoiztutako filmak erakusteko lanean. Eskola umeen artean, euskarazko filmak sustatzen ere aritzen da.

«Zinemaren esparruan euskarari bere lekua aurkitzeko baliogarria izan daiteke sari hori», azaldu zuten herenegungo aurkezpenean Foru Aldundiko ordezkariak.

Saria, datorren asteazkenean, abenduaren 1ean, jasoko du Tinko-k Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko areto nagusian 19:00etan egingo den ekitaldian.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Aia. Naturaren erdian, bi logelako apartamentu berriak, garajearekin, eta duplex etxebizitza garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Asteasu. 2 solairu, 3 logela, 2 bainu, sukalde-sala ekipatua, terraza 50 m². 669 87 19 09.

Berrobi. Etxebizitza, 75 m², bi logela, 23.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza, sukaldia, igogailua, 12 m²-ko ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza salgai.

41.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Etxe atxiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Porbearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldetz hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m²-ko terrenearekin. Piszina eta guzti. Eta gainera batzuk, tximeneta dotorea. 13.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Erratzu eta Goizuetan bordak salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Polita. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Euskal Herria kalean, 3 logelako etxebizitza, baratzarekin. 22.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Irura. 100 m², 3 logela, dena kanpoaldea, sala, 2 bainu, igogailua, berogailua... Mandio. 669 87 19 09.

Jaca. 3 logelako apartamentua salgai. Mandio. 6698719 09

Jaca. 110m²-ko etxebizitza, 4 logela, trasteleku eta garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Ordizia. 70 m²-ko etxebizitza. 3 logela, sukaldia, bainugela, sarrera eta igogailuarekin. 29.870.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Ordizia. Etxebizitza berriak, familia bakarrekoak. Eraikitako azalera: 242 m². Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m²-koa, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean. 90m²ko etxebizitza. Gela 28m²koa. Bizitzera sartzeko prest.

Tolosa. Belatan. Igogailua, 3 logela, 2 bainu ekipatuta eta ganbara. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Emeterio Arresen. 3 logela eta 110m²-ko etxebizitza. Garajea marrarekin.

Tolosa. Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m²-ko duplexa salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berritua, berogailuarekin. 26.000.000pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Larramendi kalean 65 m²-ko etxebizitza, sukaldia altzariez hornitua, kanpoaldera begira, 2 logela, igogailua eta trasteleku.

Tolosa. Foru etorbidean, leku hobereanean, erabat kanpokaldera, atikoa, 85 m² + 50 m²-ko terraza.

Bista ederra. Sukaldia, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Iurre auzoan. 33 m²-ko bokoa, 10.000.000 pta, tartelantana. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Iurren, txaleta bi lorategiarekin, 3 logela, bizitzera sartzeko. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalean, bi logela, berogailuarekin. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Amaroz auzoan, etxebizitza salgai 80 m²-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Larramendi. 90 m², 3 logela, 2 bainu, sala handia, garajea 2 autorentzat. Mandio 669 87 19 09.

NEGOZIOAK

Sagardotegiak. Funtzionamenduan dauden sagardotegi batzuk salgai, Usurbil eta Oiartzun inguruetan,

etxebizitza eta guzti. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Errementeari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09

Tolosa. 428 m²-ko pabilioi berria, ate bikoiztarekin eta sarbide egokikoa, sailhesbidearen ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Erremeritari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldetz hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. 669 87 19 09.

LURSAILAK

Nekazaritzarako. 10.000 m²-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio. 669 87 19 09.

LEITZA ▶ UDALA

Kirol azpiegituren kudeaketa mahai gainean izanen dute

Bihar, hilabeteroko ohiko udalbatzarrean kiroldegi, pilota leku eta igerilekuaren martxa eramateko lehiaketaren baldintza plika onartuko dute, besteak beste



Kirol gune osoaren kudeaketarako lehiaketa egiteko asmoz, baldintzen plika aztergai dute. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar ostirala, hilabeteroko ohiko batzarra burutuko dute Leitzako udaletxean, 21:00etatik aurrera eta zazpi puntuko gai-zerrenda izanen dute eskuartean, ospatu dituzten azken batzarrean akten onespe-

netik hasiko direlarik. Oraingoran bi izanen dituzte sinatzekoak, urriko ohikoaz gain, Igor Astibiaren atxiloketa zela eta, aparteko eta presazkoa ere egin baitzuten geroztik, azaroaren 17an zehazki. Kontuak kontu, egin nahi dizkieten aldaketak onetsi eta sinatzeko lana,

ordea, gai zerrendako gainerako puntuekin bukatu ondoren egiteko ohitura dute, gaien eztabaida aurreratuz.

Horrela bada, eskakizun partikular batzuei erantzuna ematez gain, interes orokorrekoak diren artean, kirol azpiegituren kudeaketari dago-

kion gaia izanen dute eskuartean. Kiroldegia, pilota lekua eta udako igerilekuaren jostoa lehiaketara ateratzeko bidean, beti ere alokera gisa, lehiaketarako baldintza administratibo eta ekonomikoaren plika prestatu eta onestea izanen dute lehendabiziko pausoa.

2002.ean kiroldegia ireki zenetik, Hydra-Gesport UTE-a zen kudeaketaren esleipenduna, gerora berezi eta egun Hydrak darama kirolgunearen gestioa.

Ekonomiaz ere ariko dira, bestalde, hain justu aurreko batzarrean onartu zituzten zerga eta tasen inguruan, aldaketa eta egokitzapen berriak proposatuz. Eta salmenta kontuetan, Maloko egur lotearen behin betiko esleipena ere eginen dute, eskaintza hobereena zeinek egin izan duen kontutan hartuz.

Eta Nafarroako Gobernuak hurrengo urterako asmatan plazaratu zituen aurrekontuetan euskalgintzarako egin duen murrizketa dela bide, Leitzako IKA euskaltegiak udalaren onar dadin aurkeztu duen mozioa ere eztabaidagai eta erabakigai izanen dute han bilduko direnek.

LEITZA ▶ EUSKARA

Sendagile erdaldunaren auzian, hainbat ekimen jarriko dituzte abian

Erabat euskaraz bizitzeko aukera zapuzten duen eskubide-urraketa hau salatuko dute

J. ASTIBIA

Euskara Batzordeak, astearte iluntzean egindako bileran, hainbat ekimen abian jartzea erabaki zuen, Leitzako osasun zentrori etorri den sendagile erdaldunaren auziaren inguruan.

Horrela, Osasunbideko arduraduneri, beraiek eragin duten arazo honi irtenbidea aurki diezaioten eskaria igorriko die,

beren ustez «hainbeste urtez eta hainbeste alditan osasun zerbitzu euskalduna eskatu ondoren, ulertezina gertatzen da gaur egun, oraindik ere, horrelakoak jasan behar izatea», iritziz. Herritarrek zerbitzu publikoekin duten harreman guztia euskaraz egiteko duten eskubidearen urraketa hau —beraiek euskaraz egitekoa eta arreta ere euskaraz jasotzeko— «gertaera larria irudi-

tzen zaigu, eta larritasun horrekin salatu nahi dugu», adierazi zuten.

Bitartean, herritarrei, hala iruditu eta iritziz gero, sendagilez aldatzeko duten eskubidearen berri eman diete eta horretarako, eskaera hori egiteko alegia, agiria ere prestatu. Bertan nabarmen adierazten da, eskari horren eragile eta arrazoi bakarra hizkuntza dela, horren sinatzaileek «euskaraz bizitzeko ahalegin handia eta kontzientea egiten ari gara» argudiatuz eta «medikuarekin ere hala egin nahia», azalduz. Horrela, eskaera-orri hori eskuratu nahi izanez gero, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuaren bulegora deitu (948 510 814) edo bertara joatea besterik ez da egin behar, abenduaren 15a baino lehen ahal baitaitean.

LEITZA ▶

Zufiaurren argazkiak erakusgai Mesonen

J. ASTIBIA

Pako Zufiaurrek argazki erakusketa jarri du Iruñeko Mesonen ostatuan eta hurrengo asteetan hantxe izanen da ikusgai.

Leitzan Torrea tabernan urrian burutu zuenean baino argazki gehiagoz hornitutakoa da oraingoa, besteak beste, hango aretoan leku gehiago ere badelako. Edozein moduz, gure herrietan bertan, oharkabean eta uste ez dela, dugun altxorren erakusketa ikusgarria da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, Iarriald: 461111
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (Iarrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxis: 67 04 20
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz. Amaroz, 9, (Tolosa). 943 675 118
Plaza. Elbarren, 36, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetalde. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko.
943 691 933.

SALGAI

Taberna salgai. Gazte taberna salgai Tolosan. 660 17 81 83.

GALDUTAKOAK

Urrezko pultsera. Urrezko pultsera galdu genuen Ibarra eta lurramendi artean. Balio sentimental handia du. Deitu 943 671 511 edo 679 31 61 22-
[ra.](#) Diru eskertza izango da.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Zahartzaroko aldetak. 16:30ean, Jubilatuko Elkartearen.
Ikaztegieta. Nora hoo neska antzezlan. 20:00etan gimnasioan.
Tolosa. Ipuin kontaketa. 18:00. Haur Liburutegian.
Tolosa. Gaizka Arangurenen hitzaldia euskal estatuaz. 19:30ean udaletxean.
Villabona. Ramon Garateren hitzaldia: Klima eta osasuna. 17:00etan Biltoki jubilatuko elkartearen.
Villabona. Ana Elbusto: Gizentasuna, anorexia eta bulimia. 15:00etan Gurean.

ERASO SEXISTEN AURKA

Amezketak. Emakumeen kontrako indarkeriari ez! bilkura. 20:00etan plazan.
Anoeta-Irura. Ipuinak Irurako Ikastolan 9:30ean eta Anoetako Ikastolan 11:30ean; ipuin lehiaketaren sariak. Ipuinak Anoetako udaletxean 15:30ean.
Irura. Kafe tertulia: Erasoei nola aurre egin (17:30) eta Agresiones bideoa Ikastolan.
Tolosa. Kontzentrazioa 20:30ean Triangulon.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Monster. Gaztetxean 21:45ean.
Tolosa. Capturing the Friedmans. Leidor. 21:30.

Maitasuna zeinuen hizkuntzan

TOLOSA ▶ Zaragoza eta Aragoako Gorren Elkarteak 'Teruelgo maitaleak' antzezlan eman zuten zeinuen hizkuntzan; 170 pertsona gor izan ziren ikusten




Saioaren ondoren, Zaragozako Gorren elkarteak opari bat eman zion Gainditzen-eko lehendakariari. HITZA

ERREDAKZIOA

Zeinuen hizkuntza erabiliz *Teruelgo maitaleak* antzerki saioa eskaini zuten larunbatean Zaragoza eta Aragoako Gorren Elkarteak Tolosako Leidor zineman. Antzezleak gorrak ziren, baina zeinuen hizkuntza dakiten interpreteak zituzten ondoan, ikusleei emaldia azaltzeko.

Antezlanak leienda ezagun



'Teruelgo maitaleak' antzezlan eskaini zuten Leidorren. HITZA

bat du oinarri. Juan Diego Martinez de Marcilla eta Isabel de Segura gazteen maitasun istorioa azaltzen du. Elkarren aurka dauden Teruelgo familia nagusietako kideak dira eta bere gurasoek ez dute ondo ikusten maitasun hori eta beste batekin ezkondu zuten Isabel.

Ikuskizunean 170 bat pertsona gor izan ziren, Hego Euskal Herri osotik eta beste hainbat lekutatik etorriak: Kantabria, Errioxa, Burgos, Zaragoza...

Ikusleak pozik gelditu ziren antzezlanaren interpretarean beharrik gabe ulertu zutelako. Aktore gorrek bere emozioak azaldu zituzten gorputz adierazpenaren eta zeinuen bidez.

Ekitaldiaren antolatzaileek balantze ona egin zuten: «Pertsona gorrek nola aktuatzaren duten, bere pertsonaien sententzio eta emozioak nola transmititzen dituzten ikusi genuen eta ikuslearen laguntza izan zuten». Horregatik eskerrak eman nahi dizkiete Gainditzen Tolosaldea eta Goierriko Gorren Elkarteari. Bukaeran Zaragoza eta Aragoako Gorren Elkarteak opari bat eman zion Julian Rodriguez Gainditzen-eko lehendakariari.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZaren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Nagore Zabala Luluaga. Gaur 9 urte betetzen ditu. Jarraitu horrela, trikitilari. Zorionak ama, aita eta Gorkaren partetik.



ZORIONAK

Olatz (Amasa-Villabona). Gaur 29 urte. Andoni, Eñaut eta Amaizurren partetik.



URTE ASKOAN

Andoni Artola Beloki (Anoeta). Gaur 2 urte. Zorionak ama eta aitaren partetik.



URTE ASKOAN

Joseba Goikoetxea (Amezketak). Gaur 22 urte. Zorionak guapiximo!!!



URTE ASKOAN

Maddi. Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Andoni Artola Beloki (Anoeta). Gaur 2 urte. Zorionak aitona-amon, osaba-izeba eta Leire eta Lorea lehengusuen partetik.



URTE ASKOAN

Joxe Mari Balerdi (Lizartza). Zorionak attona! Amets et Garaziren partetik.